

hondo-hondotik

J.M. Ferradas, Mikel Isasi eta Ion Arregi

(Zutik-eko kideak)

Erabateko eskumen polizial eta militarrek mendebaldean

Mendebaldeko gobernuek, Estatu Batuak eta Ingalaterra buruan dituztela, «terrorismoa» —hain gauza orokorra eta zehaztugabea— hartu dute borrokatu beharreko etsaitzat. Hori baita *gure gizartearen, gure bizimoduaren* edo *Ongiaren* besterik gabe, Bushen, Blairren edo Scroederren hitzetan, arriskurik handiena gaurko egunean. Beste gerra «luze eta zikin bat», zein Gerra Hotzeko garaietan komunismoaren kontra egindakoaren aldaera eguneratua baino ez den. Aitzakia ezin hobe da beren mugen barruan zein kanpoan esku hartzeko; lege kanpo ere bai behar izanez gero.

Kosovon giza eskubideak betetzeko aitzakiarekin, Serbia bonbardatu zuten; eta bere garaian Irak suntsitu zuten, haren hedatze nahia oztopatzearen. Gaur egunean, Kolonbian «narko-gerrilla» deitzen dutenaren kontrako kanpaina militarrek agintzen du; eta hainbat holako. Izan ere, kasu horiek AEB Ameriketako Estatu Batuek estatu gisa eratu zirenetik egin dituzten 126 esku-hartze zuzenetako edo II. Mundu Gerratik egin dituzten 24 bonbardaketetako gutxi batzuk baino ez dira, kontuan hartu gabe estatu kolpe edo diktadura militarren bitartez erregimenak eta gobernuak aldatzeko egin dituzten ehunka saioak. Giza eskubideak, nazioarteko legaltasunaren defentsa, drogaren kontrako borroka, terrorismoa... Edozer zaio baliagarri nazioarteko jendarmeari bere nahia nagusitu dadin.

Afganistanen zenbat hil diren ez dakigu, ez dakizkigu haien izenak, ez ditugu ikusi haien aurpegiak, ezta haien etxe, komertzio edo uzta birrinduak ere. Informazioaren blokeoa eta AEBetako Estatu idazkariak jendaurrean esan zuena, hau da, *gerran gezurra esan beharko litzatekeela*, zorrotz betetzen ari dira: gertakizunak ezkutatu egiten dituzte, gezurra esaten dute eta informazio okerra zabaltzen. Irudi publikoaren inguruko marketinak irudi horren itxura aldatzea eta bestelakotzea eskatzen du, abentura militar ankerrak eta era guztietako esku-hartze

odoltsuak askatasunaren eta aurrerapenaren balio gorenaren defentsa modura aurkeztuko badira.

Beste zenbaitek, beste idatzi batzuetan, dagoeneko agertu dituzte —gure ustez, oso modu egokian— AEBek Afganistanen esku hartzeko dituzten interesak. Erdialdeko Asiako petrolioaren eta gasaren auzia aipatu izan dute, Afganistan helburu horretarako herri geostrategikotzat dutela, eta, horrenbestez, egonkortasun politikoa behar duela; multinazionalak beren suntsitze aseezinerako bidea markatzen dutela; AEBek munduko nagusitasun militarra aurkaria menperatuta eta aliatua kontrolatuta lortu nahi dutela; beren nahiekin bat ez datozen herriak azpiratu nahi dituztela...

Baina guk salbuespeneko lege multzo arriskuak azpimarratu nahi genituzke —zenbait kasutan indarrean daude jadanik—, edozein disidentzia geldirazteko eratuak. Hala, AEBetan, Bushek isilpeko auzitegiak eratzeko ahalmena eman dio Pentagonoari, ustezko terroristak preso hartu, epaitu eta exekutatu ditzan. Hango Justizia Departamentuak zerrenda bat egin du 5.000 atzerritarren izenekin, eta gaur egun 1.200 pertsona daude atxilotuta irailaren 11ko ekintzetan ustez parte hartu edo lagundu zutelako. AEBetan *sorgin ehiza* zabaldu da; pertsonak, erakundeak, enpresak eta taldeak, defentsa judizialerako edo errugabe direla uste izateko inongo eskubiderik gabe, alde aurretik susmagarritzat eta erruduntzat jotzen dituzte. Horrek, legeren arloan, ez du aurrekaririk, gerra garaian ez bada. Jakina, oraingoa gerra garaitzat dute.

AEBek eta EBk segurtasunarekin duten obsesioak herritarren eskubide indibidual eta kolektiboen kontra inolako zigorrik gabe jardutera eraman ditu munduko herrialde aberatsenak eta beren sistema

demokratikoarekin harroen daudenak. Irailaren 11ko atentatuaren ondoren, indarrean jartzen ari dira hainbat neurri polizial eta judizial, eta, hala, ezerezean gertatzen ari dira ustez sistema politiko moderno oinarritzen den balio garrantzitsuenak. Segurtasuna aitzakia ezin hobe da hori zuzitzeko. Gure gizarteak gaizki egingo luke bere askatasunari uko egingo balio balizko segurtasunaren alde.

Egun gutxitan, AEBek osatu egin dute Aberriaren Lege berri eta makurra. Lege horrek ahalmen guztia ematen dio Poliziari susmagarriak inongo akusaziorik gabe preso edukitzeko zazpi egunetan,

edota herrialdetik egozteko inongo prozesu judizialik gabe; halaber, atxilotuen eta abokatuaren arteko harreman konfidentziala deuseztatzen du; etxe miaketak agindu judizialik gabe egitea ahalbidetzen du; komunikazio guztiak zaintzen ahal dituzte, baita Internetekoak

ere; eta, informazioa lortze aldera, tortura legeztatzea eztabaidatzen ari dira; eta terrorismoarekin zerikusi dutela uste duten pertsonen edo taldeen kontu korronteak kontrolatzen dituzte. Baliteke mugen eta Poliziaren fitxategien blindajeak ustekabe eta atsekabe bat baino gehiago ekartzea zenbait etorkin, disidente edo gaurko egunean mundua nola dagoen ados ez dauden herritar baketsuri.

Frantzia ere, legedi bereziaren presatuntzan, gerra garaian ezarri ahal diren salbuespen legeen mugetatik baino harantzago doa, bere polizi eta lege sistema indartuta. Eta Erresuma Batuan, Gabonak baino lehen, *habeas corpus* eskubidearen baliogabetzea onartuko dute, *larrialdi publikoko egoera* deklaratu.

Europako Batasuna, hau da, hori osatzen duten Europako 15 herrialdeak neurri horien antzekoak ezartzearen inguruan eztabaidatzen ari dira, eta gertu

daude Estatu Batuei laguntasun guztia emateko komunikazioen kontrolari, informazio trukaketari eta estradizioei dagokienez. Hala, bada, Europako arlo polizial eta judiziala sendotu egingo da, eta Genoako gertaeren ondoren hartutako neurriak biribildu egingo dituzte: fitxa poliziala legezko manifestazio batean parte hartzeagatik bakarrik, eta mugetako kontrolak.

Espainiako Gobernuari ere aukera-aurkeran datozkio nobedade horiek guztiak; adibidez, globalizazioaren kontrako mugimenduen aurka erabiltzeko —are gehiago orain, EBko lehendakaritza Espainiaren eskuetara pasatzekotan dagoela—, edo batez ere Euskal Herrian aplikatzeko, ETaren jarduna aitzakiatzat hartuta, eta, hala, zenbait gizarte talde edo politiko kriminalizatu edo lege kanpo uzteko.

Echelon deritzon munduko espioitza sistema anglosaxoi sofistikatua, zein komunikazio guztiak kontrolatzeko erabiltzen duten, eta halakorik badenik ere onartzen ez duten, legeztatze arriskua dago salbuespen legeen bitartez, eta, ondorioz, legez babestuko dute herritarren pribatutasunaren eta eskubide indibidualen urratze erabatekoa eta sistematikoa baino ez dena. Gauza bera gertatzen da sistema horren kide diren Europako *enfpol* eta Errusiako *sorm*. Ba al dago pentsatzerik herritarren eta buruzagien arteko harreman egokiagorik, mendebaldeko demokrazian dena baino?

Mendebaldeak irailaren 11koa bezalako atentatuak izan ditzakeela ikusteak ez ditu herritarrak zertan bultzatu agintariei baimen osoa ematera haiek beren ahalmenak diktaduraren pare erabil ditzaten. Ezin dugu onartu askatasuna edo segurtasuna aukeratu behar dela diogen eztabaida faltsurik. Hainbeste kostata lortutako askatasunak defenditu behar ditugu. Batez ere ez direlako gobernu eta agintarien apetaren fruitu, baizik eta urte askotako borrokaren fruitu.

Erredakzioan itzulia

Zientziaren itzulpenaz

(Aurreko orrialdetik dator)

ten direnak, eta badira euskal munduan aipatu berri ditudan eremu biak (zientzia eta hizkuntza) ganoraz uztartzen eta taxutzen dituzten profesional talde nahiz gizabanakoak. Izan ere, ez nuke nahi inork pentsatzerik hutsetik abiatzen garerik, nahiz ez dudana hemen profesional horien izenik eman. Baina gerora begira,

agian, formakuntza planei ekiteko garaia dugu, itzulpengintza ikasketak (unibertsitatekoak) aurrera doazelarik eta zientzia euskaraz ere sendo samar jorratzen delarik. Maiz entzun dut bata zein bestea izan daitezkeela itzultzaile espezializatu on: bai espezialitate jakin bateko gaietan jantzi den itzultzaile profesionala, bai hizkuntza arazoetarako sentikor ageriden eta hizkuntza arazoetan trebatu den

espezialista edo zientzialaria. Badirudi urrats bat aurrera egiteko ordua iritsi dela eta sentikortasun, jantze eta trebatze horiek antolatu egin behar liratekeela plangintza arautuen bidez.

Bitartean, dugunaz baliatu behar dugu, baina ez da erraz lan txukuna egiten gutxieneko gaitasun eta lan-moduak erabili gabe. Ezinbestekoa dugu, hortaz, talde-lana (lan egiteko orduan ezinbestekoa gertatzen da itzultzaile eta espezialisten arteko lankidetzak; formakuntza garaian, berriz, itzulpen teknika eta metodoak nahiz zientzia-arloko

azken orduko berriei jabetzea komeni da). Eta —hara azkenerako utzia agian hausnarketa honen lehen paragrafoan behar zuena— testuren bat euskarara itzuli nahi duenak euskara jakin behar du oso ongi. Ez naiz hemen hizkuntza gaitasun osoaren definizioa zehazten hasiko, baina erraz ulertuko du irakurleak ezen testu konplexuak beste hizkuntza batetik euskarara txukun moldatu eta testu idatzi oso eta koherentea osatuz emateko, ez dela nahikoa euskaraz nola edo hala moldatzea. Hasi kontuak ateratzen.